

A S T R A B U D U A

Astrabudua auzoaren izena **Atxa** eta **Trabudua** toponimoen batuketatik dator. Gaur egun Atxa (Atxes) izenez ezagutzen dugu Axpuru mendiaren magalean kokatutako baserri multzoa. Oraindik bertan irauten dute, besteak beste, aspaldiko baserri etxe batzuek: **Etxezarra**, **Barriena** (*Barrene*) eta **Etxebarria**. **Etxezarra** (*Etxezarre*) baserriaren jatorrizko izena **Atxa** da, **Atxaetxezarra** izena ere hartu zuena etxe berriagoak egin zirenean.

Atxa hitza gainera, auzo honetako beste hainbat toponimotan ere ageri da: **Atxabidea**, **Axpuru** baserria eta mendia (atxa eta burua hitzez osatua), **Axpe** (Atxa eta -pe behean esanahia duen atzizkia) Astrabuduko auzo txikia, besteak beste. Hain zuzen ere tren geltokiak duela gutxi arte **Axpe** izena zuen.

Trabudua ere etxalde baten izena da, eta inguruan zuen etxe-multzoarena: **Trabuduatzikerra**, **Trabuduaurrekoa** edo **Lukiena** (*Lukine*) eta **Trabudualkonena** (**Trabuduaerdikoa**) edo **Alkonena** (*Alkone*).

Auzoa bera izendatzeko **Astrabudua** izena lehenengoz udal agiritegiko 1808ko dokumentu batean erabiltzen da. Aurretik Trabudua edo Atxa eta Trabudua izena agertzen dira.

El nombre de Astrabudua proviene de la composición de los topónimos **Atxa** y **Trabudua**. Hoy en día se denomina Atxa, o Atxes de forma oral, al conjunto de caseríos situados en la ladera del monte Axpuru. Algunos caseríos que han perdurado hasta nuestros días pertenecieron antaño a ese conjunto de caseríos: **Etxezarra** denominado antiguamente **Atxa** (*Etxezarre*), **Barriena** (*Barrene*) y **Etxebarria**.

La palabra **Atxa** aparece, además, en otros topónimos de este barrio: el camino **Atxabidea**, el caserío y el monte **Axpuru** (compuesto por las palabras en euskera *atxa* y *burua*), o **Axpe** (derivado de la unión de la palabra *atxa* y el sufijo -pe, que significa "debajo de"), un barrio menor de Astrabudua. Precisamente, la estación de tren se denominaba **Axpe**.

El nombre **Trabudua** corresponde también a un caserío, así como al conjunto de casas de su entorno: **Trabudua**, **Trabuduatzikerra**, **Trabuduaurrekoa** o **Lukiena** (*Lukine*) y **Trabudualkonena** (**Trabuduaerdikoa**) o **Alkonena** (*Alkone*). El nombre **Astrabudua** se encuentra recogido en un documento del archivo municipal fechado en 1808, utilizado por primera vez para designar



ETXEZARRA

Baserri-auzo izatetik, Erandioko biztanlerik gehien duen auzoa izatera pasatu da. Horrela, gaur egun baserri gutxik irauten du zutunik; baina, zorionez, baserri horien izenak bizi-bizirik daude kale-izendegian gorde direlako. Toponimo horiek kale-izenetan gordetzeaz gain, kale egokietan gordetzen dira; izan ere, eraikina zegoen, edo orandik dagoen, lekuaren inguruko kaleak darama etxaldearen izena: **Alkonena** (*Alkone*), **Trabudualkonena** baserriagatik, **Juanena** (*Juanene*), izen bereko baserriagatik, **Iturribengoa** (*Iturrimingo*), izen bereko iturriagatik, **Kintoena** (*Kintone*), izen bereko baserriagatik, **Oleaga** (*Ollaga*), **Oleaga** izeneko etxalde-mul-tzoagatik (dokumentazioaren arabera bi zeuden **Oleagagoikoa** eta **Oleagabekoa**), **Txakurzulo** bidea, Txakurzulo izeneko XIX. mendeko etxeari erreferentzia eginez, Astrabudua eta Leioako mugan zegoena, dagoeneko desagertua. **Atxape** kaleak ere izen bereko baserri desagertuari zor dio izena; eta **Madaripebideak**, bestalde, inguruko madariondoei.

Astrabudua izenaren amaierako -a artikulua da, ez da berezkoa. Horrek zera esan nahi du deklinatzerakoan galdu egiten dela eta beraz *Astrabuduko*, *Astrabudutik*, *Astrabudura* bezalako formak erabili behar ditugula. Non kasuan, ostera, *Astrabuduan* esan behar da.

el barrio. Anteriormente, aparecen los nombres Trabudua simplemente o Atxa y Trabudua.

De ser un barrio principalmente compuesto por caseríos, se ha convertido en el barrio de Erandio que actualmente alberga mayor número de habitantes. Así, hoy en día quedan pocos caseríos en pie de todos los que hubo, pero por fortuna los nombres de esos caseríos siguen vivos porque se han conservado en el callejero. Y además de preservarlos como nombres de calles, se han utilizado en el sitio adecuado, en el lugar más cercano al sitio donde levantaba o se encuentra el edificio en cuestión: **Alkonena** (*Alkone*), en relación al caserío **Trabudualkonena**, **Juanena** (*Juanene*), en relación al caserío del mismo nombre, **Iturribengoa** (*Iturrimingo*), en relación a la fuente homónima, **Kintoena** (*Kintone*), en relación al caserío del mismo nombre, **Oleaga** (*Ollaga*), unida a la casería **Oleaga** (según la documentación analizada, existían dos caseríos, de nombre **Oleagagoikoa** y **Oleagabekoa**), **Txakurzulo** bidea, en referencia a la casa Txakurzulo del siglo XIX, situada en el límite entre Astrabudua y Leioa, hoy desaparecida. La calle **Atxape** debe su nombre al desaparecido caserío del mismo nombre y, por último, **Madaripebidea**, hace referencia a los perales cercanos. La -a final del nombre Astrabudua conforma el artículo y, por tanto, no es orgánica. Eso quiere decir que al declinar el nombre se pierde la vocal y, así, en euskera, deben utilizarse las formas *Astrabuduko*, *Astrabudutik*, *Astrabudura*. En el caso inesivo (dónde), en cambio, debemos decir *Astrabuduan*.



ETXEZARRA

Axpuru



Badirudi mendiaren jatorrizko izena **Axpe** zela eta buru izena beranduago erantsi zitzaio-la, tontorra izendatzeko egin ohi den bezala.

Hirugurutzeta edo **Tres Cruces**, ordea, berriagoa da, eta hala aitortzen dute bertako euskaldun zaharrek; izan ere, izen berri hori bertan eraikitako hiru gurutzei zor zaio.

Goikolarra ere esaten diote tontor inguruari, izen hori desagertutako etxalde baten izena ere bada, ziurrenik lekuaren izenetik hartuko zuena izena. Nolanahi ere, mendi honen izen jatorra **Axpuru** da.

Axpuru baserri zaharra **Axpuru** mendian zegoen, tontoretik gertu. Karlistadetan liberalak lekuaren egokitasunagatik hantxe bertan gotorlekua eraikitzea erabaki zuten eta baserria lekuz aldatu zuten. Baserri edo gotorleku zaharraren aztarnak oraindik ikusgai daude. Gaur egungo **Axpuru** baserriaren eraikina XIX. mende amaierakoa da beraz.

Parece ser que la denominación original del monte era **Axpe**, y que la palabra buru se le añadió posteriormente, tal y como se hace habitualmente para designar la cima. Por contra, la denominación **Hirugurutzeta** o **Tres Cruces**, es más reciente, y así nos lo han corroborado los y las informantes oriundos del lugar. De hecho, el nuevo nombre se debe a las tres cruces construídas en ese paraje. También llaman **Goikolarra** a la zona alrededor de la cima, donde había un caserío, actualmente desaparecido, que tomó el mismo nombre. En cualquier caso, el nombre original del monte es **Axpuru**.

En el monte **Axpuru**, el viejo caserío **Axpuru** estaba cerca de la cima. Pero en las guerras carlistas, los liberales decidieron construir un fuerte allí por la idoneidad del lugar y cambiaron de sitio el caserío. Los restos del viejo caserío o del fuerte aún pueden observarse. El edificio del caserío **Axpuru** actual es de finales del siglo XIX.



AXPURU BASERRIA

Astrabuduko etxaldeak mendez mende Caseríos de Astrabudua a lo largo de los siglos

XVII. MENDEKO ETA LEHENAGOKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XVII Y ANTERIORES

Alkonena (*Alkone*)
 Atxaetxebarria *
 Axpuru
 (gerora lekuz aldatua /
 posteriormente cambio de ubicación)
 Barrankosena *
 Barriena (*Barrene*) *
 Barrutieta *
 Elexazpi *
 Etxezarra (*Etxezarre*)
 Goikortu *
 Goitiko *
 Lukiena * (*Lukine*)
 Oleagabekoa * (*Ollagabeko*)
 Oleagagoikoa * (*Ollagagoiko*)
 Trabudua *

XVIII. MENDEKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XVIII

Kintoena * (*Kintone*)
 Tranpa (Udondo) *

XIX. MENDEKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XIX

Askorrena * (*Askorrene*)
 Atxondo *
 Axpe *
 Txakurzulo *

XX. MENDEKO ETXEAK

CASAS DEL SIGLO XX

Aurrekoetxe
 Bistalai
 Etxederra
 Juanena * (*Juanene*)
 Mendiazpi
 Mentxaka *
 Oriosolo*
 Saliturri *
 Ugartebarri
 Villa Felisa
 Villa Llorente

